



324/2022 Ebazpena, martxoaren 29koa, Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen den Osakidetza webgunean argitaratzeko 2018ko aldi baterako kontratazioko zerrenda eguneratuak (2014-15eko EPetik sortutakoak), bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakia (EHAA 106 zk., 2011ko ekainaren 6a), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluarena. Horren bidez arautzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko aldi baterako kontratazio-zerrendak.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren 10.4 atalaren arabera, urte bakoitzeko lehen lauhilekoan eguneratu egingo dira Osakidetza aurreko urtean dagokion kategorian emandako lanbide-esperientzia eta ezarritako epean aurkeztutako euskara-eskakizunak, Erabaki horren 4. atalean aurreikusitako moduan. Horretan oinarrituta, honako hau


EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza webgunean aldi baterako kontratazioko 2018ko zerrenda eguneratuak argitaratzeko agintzea, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda modalitateetan.

Zerrenda horiek 2022ko martxoaren 30ean jarriko dira indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Osakidetza zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 29an


Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

